

Europako Batzordeak iradoki du estatu kideek, besteak beste, herritarren artean autokontsumoa bultzatu behar dutela, kontsumitzaileak gai izan daitezen beren kabuz energia sortu, biltegiratu, partekatu, erabili eta merkatuan saltzeko, zuzenean edo agregatzaileen bitartez. Horrela, kontsumitzaileek aktiboki kontrolatu eta kudea dezakete beren energia kontsumoa, geroago kontsumituko duten energia ekoizteko prozesuaren subjektu aktibo bihurtzen direlako.

Izan ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/944 (EB) Zuzentarauak, 2019ko ekainaren 5ekoak, elektrizitatearen barne-merkaturako arau komunei buruzkoak, herritarren energia-komunitatearen figura definitu du, herritarrei, baita toki erakundeei ere, energiaren merkatuetan parte hartzeko bidea ematearren. Era berean, Zuzentarauak premiatzen ditu estatu kideak komunitate horiek garatzea ahalbidetzen duen esparru bat ezar dezatela, kontsumitzaileei komunitate horietan sartzea bermatzeko eta entitate horiek energiaren merkatuetan sartzera izan ditzaketen oztopo bidegabeak kentzeko.

Horrez gain, Espainiako Estatuak autokontsumorako esparru juridikoa sortu du energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen apirilaren 5eko 244/2019 Errege Dekretuaren bidez, eta, ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, energia berriztagarrien komunitateen definizioa txertatu du.

Bestaldek, Donostiako Udalak hamarkadak daramatza klima aldaketaren aurkako borroka bultzatzen. Izan ere, 2017an, Klima DSS2050 estrategia onartu zuten eta hiria Energiaren eta Klimaren aldeko Alkateen Itun berriari atxikitzeko erabakia sinatu zuten. Estrategia hori onesteak, baita Alkateen Itunari atxikitzeak ere, berotegi efektuko gas isuriak murrizteko helburu jakin batzuk onartzea dakar ondorioz; horretarako, ezinbestekoa da energia berriztagarrien ekoizpena sustatzea, sektore publikoan ez ezik, baita bizitegi sektorean ere.

Gainera, 2020ko martxoan, Udalak Klima Larrialdiaren Adierazpena onartu zuen, ekintza sorta konkretua jaso zuena. Energiaren arloan, energia berriztagarrien autokontsumorako ekoizpena eraikin pribatuetan bultzatzeko beharra azpimarratu da.

Ondorioz, aipatu helburua betetzearren, komenigarritzat jotzen da dirulaguntza lerro hau sustatzea, Donostiako udalerrian, energia berriztagarrien komunitate berrien sorrera eta baita energia komunitateek eta etxebizitzaren bizitegi-erabilerako eraikinen jabeen erkidegoek ere instalazio fotovoltaikoetan egin ditzaketen inbertsioak bultzatzeko.

Helburu hori duen hirugarren deialdia da hau, 2023 eta 2024koen ondoren. Aipatutako deialdiak izapidetzean lortutako esperientziaren ondoren, 2025eko deialdi berri honetan etxebizitzetarako eraikinen jabeen erkidegoei dirulaguntza jasotzeko aukera ematen zaie, autokontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoetan inbertitu nahi badute. Neurri honen bidez, herritarrei energia berriztagarriaren autokontsumorako sarbidea erraztu nahi zaie, dauden antolaketa-egiturak aprobetxatuz, hala nola jabeen komunitateak, beste egitura berri batzuk osatu beharrik gabe, horiek eratzeak eta horiei atxikitzeak pertsonen dakarkien konplexutasun-maila dela eta.

Hori dela eta, dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onartu egiten dira.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

I. TITULUA

Donostiako udalerrian, energia berriztagarrien komunitate berrien sorrera eta baita energia komunitateek eta jabeen erkidegoek ere instalazio fotovoltaikoetan egin ditzaketen inbertsioak sustatzeko dirulaguntzak emateko araubideko oinarri arautzaileak.

1. oinarria. Xedea

1.1. Dirulaguntzen lerro hau, energia berriztagarrien komunitate berrien sorrera eta energia komunitateek eta etxebizitzaren bizitegi-erabilerako eraikinen jabeen erkidegoek instalazio fotovoltaikoetan egin ditzaketen inbertsioak sustatzeko, Donostiako Dirulaguntzetarako 2024-2026 Plan Estrategikoan aurreikusi da, dirulaguntza horri buruzko fitxan (Planean bertan) zehaztutako helburu estrategikoak betetzen laguntzeko; honako helburu hauek dira, hain zuzen.

Helburu estrategikoak:

- Udalerrian, berotegi efektuko gasen isuriak murriztea, klima aldaketari aurre egiteko.

Helburu zehatzak:

- Energia berriztagarriaren ekoizpena bizitegi sektorean bultzatzea.
- Energia berriztagarrien autokontsumorako ekoizpena eraikin pribatuetan bultzatzea.
- Herritarren burujabetza energetikoa sustatzea.
- Elkartegintza eta herritarren parte hartzea sustatzea.

1.2. Donostiako Udalerrian energia berriztagarrien komunitate berrien sorrera bultzatzeko dirulaguntzak norgehiagokarik gabeko araubidean banatzeko prozedura arautzea da oinarri hauen helburua. Era berean, oinarri hauen xede dira Donostiako udalerrian lehenago eratu diren energia komunitateei eta nagusiki etxebizitza-erabilerara bideratutako bizitegi-erabilerako eraikinen jabeen erkidegoei zuzendutako dirulaguntzak, eguzki energia fotovoltaikoaren instalazioetan inbertitzeko.

Hain zuzen ere, aurreko esparruan, ondoko hauek joko dira diruz lagun daitezkeen jardueratzat:

A multzoa. Elkarre eskatzaileari etorkizunean energia berriztagarrien komunitate bat sortzeko behar diren ekintzak burutzen laguntzea helburu duten jarduerak, hain zuzen:

- Energia berriztagarrien komunitateak eratzea helburu duten partaidetza prozesuak antolatzea.
- Energia berriztagarrien komunitateei buruzko informazioa eta publizitatea zabaltzeko kanpainak, abian jarri nahi direnak.
- Behar diren baliabideak prestatzea eratzeko eta interesdunek aurretiko izen-ematerako (web orriak, izena emateko orriak eta abar).
- Energia berriztagarrien komunitatearen bideragarritasun tekniko-ekonomikoa eta hartu beharreko gobernantza aukerak aztertzea.
- Energia berriztagarrien komunitatea eratzeko legezko dokumentuak idaztea eta inskribatzea (estatutuak, eskritura publikoak eta abar).
- Energia komunitateei lotu nahi zaizkien eguzki energia fotovoltaiako instalazioen bideragarritasun azterketak.

B multzoa. Eratutako energia komunitateei eta etxebizitzaren bizitegi-erabilerako eraikinen jabeen erkidegoei laguntzeko jarduerak, hain zuzen:

- Autokontsumo kolektiboko erregimenerako eguzki energia fotovoltaiako instalazioetan eta horiei egokitu dakizkiekeen biltegiatze-sistemetan inbertitzeko jarduerak. Bai instalazioen proiektu teknikoak, bai proiektuaren exekuzioa hartuko dira barnean.

Instalazio fotovoltaiakoak berezko dituen elementuez gain, honako gastu hauek ere diruz lagundu daitezke:

- . Lehendik dauden estalkietako instalazioetan, plakak behar bezala ainguratzeko beharrezko egiturak eta, halakorik ez badago, bizi-lerroa ere.

. Kanpoko aparkalekuetako instalazioetan, halakorik ez badago, plakak jartzeko beharrezkoak diren pergola motako egiturak.

. Lurzoruko instalazioetan (iada artifizializatutako gainazaletan), plakei eusteko beharrezko egiturak.

Programa honen bidez ezingo dira diruz lagundu deialdi honen xede diren sorkuntza sistemari lotuta ez dauden energia kudeatu eta biltegitratzeko sistemak soilik dauzkaten instalazioak. Aipatutako instalazio fotovoltaiakoei ez datzekion eta deialdi honen xede den sortze-sistemari lotuta ez dauden elementuen gastuak ere ezin izango dira laguntza hauez baliatu.

Ez dira diruz lagunduko ondoko egoeretako bati lotuta dauden jarduerak edo proposamenak.

A multzoa:

- Elkarre eskatzaileak egoitza soziala eta fiskala Donostiako udalerrian ez duenean.
- Energia berriztagarrien komunitatea 10 pertsona fisiko eta/edo juridiko baino gutxiagok eratzen dutenean.
- Etorkizuneko energia-komunitateko kideen % 15 baino gehiago sare elektrikora konektatuta egotea Donostiako udalerritik kanpo.

B multzoa:

- Energia berriztagarrien komunitate edo jabeen erkidego eskatzaileak egoitza soziala eta fiskala Donostiako udalerrian ez duenean.
- Eratutako energia berriztagarrien komunitatea 10 pertsona fisiko eta/edo juridiko baino gutxiagok osatzen dutenean.
- Energia-komunitateko kideen % 15 baino gehiago sare elektrikora konektatuta dagoenean Donostiako udalerritik kanpo.
- Etxebizitzen bizitegi-eraikineko jabeen erkidegoa 3 etxebizitza baino gutxiagoz osatuta dagoenean.
- Instalazio fotovoltaiakoaren potentzia 30kW baino txikiagoa denean energia-komunitateen kasuetan eta 5kW jabeen erkidego kasuetan..
- Instalazio fotovoltaiakoa araudi sektoriala bete beharrenden ondorioz ipini denean.
- Energia berriztagarrien komunitatean edo jabeen erkidegoan ekoizten den energia komunitateko kideentzat soilik erabiltzen ez denean.
- Instalazio fotovoltaiakoak jartzeak ondorioz lurzoruaren artifizializazioa ekartzen duenean.
- Proiektuen xedea edo instalazioak Donostiako udalerrian ez daudenean.
- Instalazioa udal plangintzako araudiarekin bat ez datorrenean edo, hala badagokio, hirigintza lizentziarik ez duenean.
- Instalazioak aurretik erabili ez diren ekipo berriekin eginda ez daudenean.

1.3. Diruz lagundutako jarduerak martxan jartzeko behar diren dokumentu tekniko eta administratiboak prestatu ahal izateko behar besteko baliabideak –propioak edo kanpokoak– eduki beharko dituzte entitate eskatzaileek; kanpoko baliabideak kontratatzearen ondoriozko gastuak Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzak diruz lagundu ahal izango ditu, 20. oinarrian eta bat datozenetan ezarritakoaren arabera.

1.4. Proiektu baterako dirulaguntzari esker Donostiako Udalarentzat interesgarriak izan daitezkeen metodologiak diseinatzen badira, horiek udalaren eskura jarriko dira jabetza intelektualari dagokion kosturik gabe.

1.5. Diruz lagunduko dira 2025ko ekainaren 1etik aurrera hasitako jarduerak, eta haiek 2026eko irailaren 30rako gauzatuta eta justifikatuta egongo dira. Epe hori dagokion azken justifikazioa aurkeztu gabe igarota, onuradunari errekerimendua egin ondoren, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adierazteko prozedura bideratuko da, baldin eta 21. oinarrian xedatutakoa aplikagarria ez bada.

1.6. Dirulaguntza horiek merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duten onuradunentzat “*de minimis*” laguntzak direla joko da, Europako Batzordeak 2023ko abenduaren

13an eman zuen 2831/2023 (EB) Erregelamenduari jarraikiz (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko Erregelamendua). Horrek esan nahi du estatu kide batek enpresa bakar bati ematen dizkion “*de minimis*” laguntzen guztizko zenbatekoa ez dela 300.000 € baino handiagoa izango hiru zerga ekitaldiko edozein alditan. Ondorio horietarako, araubide horren eraginpean geratu direnek jasotako dirulaguntzak esanbidez aipatzen dituen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, hiru zerga ekitaldiri –aribideko ekitaldiari eta aurreko bi zerga ekitaldiei– dagokien muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez, zenbaketarako dirulaguntza jasotzeko unea kontuan hartuta.

Dirulaguntza horien onuradunek merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduerak ekonomikorik egiten ez badute, dirulaguntza ez dira Estatuko laguntzatzat joko eta aurreko Erregelamendua ez da bete beharko.”

2. oinarria. Diruz lagundutako jardueren finantzaketa

2.1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioartekoak, helburu bererako eman ditzakeen subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, hurrengo atalean aipatzen diren kasuetan izan ezik.

2.2. Dirulaguntzen zenbatekoak, beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera, inola ere ez du gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua, BEZik gabe, zerga hori kengarria bada.

3. oinarria. Entitate onuradun izatea

3.1. Honako gizatalde hauek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntzak.

A multzoa:

— Egoitza soziala eta fiskala Donostiako udalerrian duten elkarteak. Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan edo beste erregistro publiko batzuetan izena emanda egon beharko dute. Herri Entitateen Erregistroan ere izena emanda egon beharko dute.

B multzoa:

— Egoitza soziala eta fiskala Donostiako udalerrian duten elkarteak. Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan edo beste erregistro publiko batzuetan izena emanda egon beharko dute. Herri Entitateen Erregistroan ere izena emanda egon beharko dute.

— Irabazi asmorik gabeko kontsumo-kooperatibak, kooperatibisten % 85 edo gehiago pertsona fisikoek osatzen dutenean. Kooperatibak egoitza soziala eta fiskala Donostian izan beharko ditu.

— Nagusiki etxebizitza-erabilerarako diren bizitegi-erabilerako eraikinen jabeen erkidegoak, Donostiako HAPOren arabera, eta udalerrian helbide soziala eta fiskala dutenak. Jabeen erkidegoak gutxienez 3 etxebizitza izan beharko ditu.

Jabeen erkidegoek berariaz adierazi beharko dute eskabidean, DLOren 11.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, zer portzentajek edo partaidetza-kuotak osatzen duten eraikineko jabe bakoitza. Jabe horiek ere onuraduntzat hartuko dira. Eskaera Erkidegoko lehendakariak aurkeztuko du, onuradun gisa erkidegoari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa duenak. Ezin izango da desegin erkidegoa edo elkarte, harik eta DLOren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

Jabeen erkidegoko kideak dirulaguntzaren onuradunak dira, jabeen erkidegoa bezalaxe, eta horiek ere itzultza behartuta daude.

3.2 Entitate eskatzaileak ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan, egunean ez badituzte Foru Ogasunarekiko eta Udal Zerga Bilketarekiko zerga betebeharrak, indarrean dauden xedapenek onuradun bihurtzeko eta jasotako dirulaguntza likidatu arte onuradun izaten jarraitzeko ezarri dituztenak.

Betebehar horiek eskabidea aurkezteko orduan egon behar dute egunean, baita ordainketak egiteko egunetan ere, jarraian xedatutakoa galarazi gabe:

— Dirulaguntza eskatzeko unean eta ordainketak egiteko egunetan Udal Zerga Bilketa, Foru Ogasun eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten entitateei 10 eguneko epea emango

zaie, egoera horren berri jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, betebeharrak betetzen dituztela egiazta dezaten.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) aurreikusitako gainerako egoeretan dauden pertsona edo entitateak ere ezingo dira dirulaguntza horien onuradun izan.

Era berean, dirulaguntzak ez zaizkie emango Donostiako Udalarekiko zorren ondorioz premiamendu bidean ordainarazteko prozeduretan dauden partikularrei edo entitateei, ezta Udalarekiko zerga betebeharrak bete gabe dituztenei ere, zor horiek benetan ordaindu eta kitatu arte edo betebeharrak bete arte, ordainketak geroratu edo zatikatu ez badira edota exekuzioa etenda ez badago behintzat.

Halaber, elkarteak inola ere ezingo dira dirulaguntza horien onuradun izan, baldin eta Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak (2002ko martxoaren 26ko BOE) 4. artikularen 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku arrazoia den egoera batean badaude.

Era berean, ezingo dira diruz lagundu emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aipatzen diren diskriminazio anizkoitzaren faktoreengatik diskriminatzaileak diren jarduerak. Halaber, dirulaguntza horien onuradun ezingo dira izan sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik zigor administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako aldiaren.

Halaber, ez dute dirulaguntzarik jasoko Estatuko araudiaren arabera Berdintasun Plan bat ezarri behar izan duten arren halakorik ez duten enpresek, ezta 50 langiletik gorakoak izan arren, sexu jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horrelakoei aurre egiteko neurriak –estatu legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan xedatutakoari jarraikiz– ezarri dituztela egiaztatzen ez duten enpresek ere.

Ez dute dirulaguntza jasoko Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legeak ezarritako eskakizunak bete behar dituzten arren eskakizun horiek betetzen ez dituzten entitateek, ezta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legeak ezarritako eskakizunetako bat bete behar duten eta hori betetzen ez duten entitateek ere.

3.3. B multzoko (eguzki energia fotovoltaikoko instalazioetako inbertsioak) dirulaguntzak jasotzeko eskaeren kasuan, dirulaguntza eskatzeko orduan eskatzailea energia berriztagarrien komunitate gisa edo nagusiki etxebizitza-erabilerarako diren bizitegi-erabilerako eraikinen jabeen erkidego gisa eratuta egotea ezinbesteko baldintza izango da.

Dirulaguntza horien ondorioetarako, onuraduna energia berriztagarrien komunitatea dela joko da, baldin eta elektrizitatearen barne-merkaturako arau komunei buruzko ekainaren 5eko 2019/944 (EB) Zuzentarauak herritarren energia-komunitateentzat ezarri dituen baldintzak betetzen baditu, hau da:

- Aplikatzekoa den estatu-zuzenbidearen arabera, partaidetza irekian eta borondatezkoan oinarrituta dago, autonomia da eta aipatu entitate juridikoak jabetzan dituen eta garatu dituen energia berriztagarrien proiektuen inguruan kokatuta dauden bazkideek edo kideek era eraginkorrean kontrolatzen dute.
- Bazkide edo kideak pertsona fisiko, ETEak edo tokiko agintariak dira, udalerriak barne.
- Mozkin finantzarioak ekarri beharrean, bazkideei, kideei eta jarduera dagoen tokiei onura ekonomikoak, ingurumenekoak edo sozialak ekartzea dute helburu nagusi.

Dirulaguntza hauen ondorioetarako, onuraduna jabeen erkidego bat dela ulertuko da, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera eratutakoa.

4. oinarria. Eskabideak aurkeztea

4.1. Entitate bakoitzak gehienez ere eskabide bat aurkeztu ahal izango du. Eskabide guztiak deialdian ezarritako dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira, dokumentazioa eranskin gisa atxikita.

4.2. Eskaeran edo erantsi behar zaion dokumentazioan identifikazio datuak falta badira, akatsen bat badago, eskaera edo dokumentazioa osatu gabe badago, entitate interesdunei hamar eguneko epea emango zaie antzemandako akatsak konpontzeko; bide batez, ohartaraziko zaie behin epe hori igaro ondoren eskatutakoa bete ezean, egindako eskaeran atzera egin dutela joko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan xedatuta dagoen moduan.

4.3. Eskabide orria

Entitate interesdunek bitarteko elektronikoak erabili beharko dituzte eskabidea aurkezteko eta prozedurako izapide guztiak egiteko.

Dirulaguntzak jasotzeko aurkezten diren eskabideak www.donostia.eus helbidean (*Tramite eta Zerbitzuak / Tramiteak / Elkartek-Entitateak / Laguntza ekonomikoak*) eskura daitekeen berariazko inprimakiari jarraikiz idatziko dira.

Inprimaki osoa bete beharko da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak xedatzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio jardurearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek egindako agiriak ez aurkezteko.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezteak esan nahi du entitate eskatzaileak dirulaguntza ematen duen organoari baimena ematen diola Foru Ogasunak, Udal Zerga Bilketak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren artikuluan ezarritakoarekin bat, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatze aldera.

4.4. Dokumentazioa

4.4.1. Eskabide inprimakiaren arabera idatzitako eskaerekin batera, nahitaez, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

A multzoa. energia berriztagarrien komunitateak sortzen laguntzekoak:

- Jardueraren proiektua edo txosten teknikoa. Jarduera erabat gauzatzeko kronograma jasoko du, egitasmoa hasteko eta bukatzeko datak adierazten dituen.
- Diruz laguntzeko jardueraren aurrekontu xehatua, entitate eskatzailearen organo eskudunak onartua; idazpenen arabera banakatua. Argi eta garbi bereiziko da kostu hautagarria.
- Beharrezkoa izanez gero, onuradunak eskatu behar dituen hornitzaile ezberdinek emandako hiru aurrekontu, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz. Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean.

B multzoa. Eratutako energia komunitateei laguntzekoak, hain zuzen:

- Eguzki energia fotovoltaiakoko instalazioaren proiektua, teknikari eskudunak sinatua.
- Ekipoen fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak (fabrikatzaileak emandako dokumentazio teknikoaren kopia).
- Diruz laguntzeko jardueraren aurrekontu xehatua, entitate eskatzailearen organo eskudunak onartua; idazpenen arabera banakatua. Argi eta garbi bereiziko da kostu hautagarria.
- Beharrezkoa izanez gero, onuradunak eskatu behar dituen hornitzaile ezberdinek emandako hiru aurrekontu, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz. Aurkeztutako eskaintzen arteko hautaketa efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean.
- Energia berriztagarrien komunitateak edo jabeen erkidegoak onartu dituen estatutuak.
- Energia berriztagarrien komunitateak: eratutako energia berriztagarrien komunitatea gutxienez 10 pertsona fisikok eta/edo juridikok osatzen dutela egiaztatzen duen agiria. Era berean, erantzukizunpeko adierazpen bat, komunitateko kideen % 85ek konexio elektrikoa Donostiako udalerrian dutela ziurtatzeko.
- Irabazi asmorik gabeko kontsumo-kooperatibak: kooperatibisten % 85 edo gehiago pertsona fisikoak direla egiaztatzen duen agiria.
- Jabeen erkidegoak: jabeen erkidegoa 3 etxebizitzaz edo gehiagoz osatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Jabeen erkidegoak: Jabeen Erkidegoaren IFKren fotokopia, idazkari-administratzaile den pertsonak emandako agiri batekin batera. Agiri horretan jaso beharko da eskabidea sinatzen duen pertsona

Jabekideen Erkidegoko lehendakaria dela eskaera egiteko unean, edo, halakorik ezean, Jabeen Batzarraren bileraren aktaren kopia, non agertzen baita lehendakaria aukeratu duela.

4.4.2. Dokumentazio osagarria

— Pertsona eskatzailea entitatearen presidentea ez denean, entitate eskatzailearen ordezkariak egiaztatzeko, hala dela sinesgarritasunez erakusten duen edozein bide erabili ahal izango da, zuzenbidean baliozkoa bada.

Pertsona sinatzailearen kargua ez badator bat dagozkion erregistroetan agertzen denarekin, izendapen eguneratua egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio entitateari eta egiaztatze hori espedientearen jasoko da.

Dokumentazio hori entitate eskatzaileak interesgarritzat jotzen duen beste edozein dokumentarekin osatu ahal izango da.

— Eskatzailea onuradun izatea debekatzen duen egoera batean (3. oinarrian aipatutakoak) ez dagoela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, pertsona eskatzaileak dirulaguntzaren eskabidean idatzitakoa eta/edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikuluan aipatutako beste edozein baliabide erabiliz aurkeztutakoa.

— Banketxe edo aurrezki erakunde batek emandako agiria, eskatzailearen izenean dagoen kontu korronte baten titulartasuna egiaztatzen duena.

4.5. Aurkezpena

Eskabideak online aurkeztu beharko dira. Udal webgunearen bidez aurkeztuko dira, bertan ezarritako baldintzei jarraikiz: www.donostia.eus (*Tramite eta Zerbitzuak / Tramiteak / Elkarteak-Entitateak / Laguntza ekonomikoak*).

Entitate eskatzailearen presidente kargua betetzen duen pertsonak –entitate eskatzailearen ordezkari gisa arituz– aurkeztu beharko du eskabidea online.

Eskabidea presidentea ez den beste pertsona batek aurkeztu ahal izango du, baldin eta entitateak pertsona hori Oinarri hauen 4.4.2 puntuan aipatutako dokumentazioaren bidez baimendu badu dirulaguntzak izapidetzean entitatearen ordezkari izateko.

Online eskabidea sinatu behar izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 10. artikulua aipatzen dituen sinadura elektronikoko sistemetako bat erabiliz.

4.6. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak 6 hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo eguneko 09:00etatik aurrera, edo funtsak agortu baino lehen. Izan ere, horrek aurkezpen-epea automatikoki ixtea ekarriko baitu. Ezarritako epeak betetzea ez da inola ere salbuetsiko.

Eskabideak aurkezteko epea dagokion hilaren 14:00etan amaituko da, egunaren ordinala bat etorriko delarik oinarri hauek GAO-n argitaratzen diren egunarekin, salbu eta egun hori baliogabea bada; kasu horretan, epea hurrengo egun baliogabean amaituko da, ordu berean.

Muga-eguneko hilabetean ez badago zenbaketa hasten den egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean amaitzen dela ulertuko da.

5. oinarria. Jarduketak jakinaraztea eta akatsak zuzentzea

5.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoa betez, Oinarri hauetan aurreikusitako prozedurazko egintzei buruzko jakinarazpenak bitarteko elektronikoz eta banaka egingo dira.

5.2. Eskatzen diren dokumentuak falta direla edota dokumentu horietan edo eskabide orrian akats formalak daudela ikusten denean, baita baloratzeko aurkeztu den dokumentazioan akatsak ikusten direnean ere, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie akatsak zuzentzeko, errekerimenduaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Emandako epea antzemandako akatsak zuzendu gabe igarotzen bada, eskaeran atzera egin dutela joko da eta prozedura artxibatu egingo da, 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

6. oinarria. Entitate onuradunaren betebeharrak

- 6.1. Dirulaguntza emateko oinarri den jarduera egitea edo jokabidea hartzea.
 - 6.2. Jarduera egin izana, jokabidea hartu izana, baita dirulaguntza emateko edo erabiltzeko betekizun eta baldintzak betetzea ere egiaztatzea.
 - 6.3. Diruz lagundutako jarduerak behar bezala eta erabat gauzatzeko beharrezkoak diren baimen guztiak eskuratzea, lanak hasten direnetik behin betiko harrera egin arte.
 - 6.4. Dirulaguntza ematen duen organoaren egiaztapen jarduerak onartzea eta horietan laguntzea indarrean dagoen legedia betez; kontrol organoek egin ditzaketen edozein egiaztapen eta kontrol finantzario egiten laguntzea, aurreko jarduketak egin bitartean eskatzen den informazio guztia emanez.
 - 6.5. Kontabilitate liburuak, erregistro diligentziatuak eta gainerako agiriak edukitzea, merkataritza legeriak nahiz onuradunari kasu bakoitzean aplikatzen zaion sektoreko arauak eskatzen duten terminoetan ikuskatuak, baita dirulaguntzak arautzen duten oinarrietan eskatutako kontabilitateko egoera orriak eta berariazko erregistroak edukitzea ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatze aldera.
 - 6.6. Jasotako funtsak erabiltzea justifikatzen duten dokumentuak lau urtez gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketetan erabili behar diren bitartean.
 - 6.7. Hala badagokio, dirulaguntza ematen duen organoari diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jaso izanaren berri ematea; administrazio edo erakunde batek, publikoak zein pribatuak, estatukoak zein nazioartekoak emandakoak izan daitezke.
 - 6.8. Dirulaguntza emateko aintzat hartu den edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatu dela jakinaraztea.
 - 6.9. Oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.
 - 6.10. Dirulaguntzak jaso dituzten entitateek Donostiako Udalarekin koordinaturik jardun beharko dute, jarduera behar bezala gauzatzeko. Horretarako, une bakoitzean adostutako erabakiak hartzeko behar besteko gaitasuna duen ordezkari bat izendatuko dute.
 - 6.11. Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen bidez lagundutako jarduera argitalpenetan, zabalkunde jarduketetan, web orrietan eta, oro har, edozein hedabidetan aipatzen den bakoitzean, finantzaketaren jatorria (Donostiako Udala) aipatu eta horren ikusgarritasuna bermatu beharko da, bereziki, diruz lagun daitezkeen jarduerak eta beren emaitzak sustatzen direnean; horrelakoetan, informazio koherentea, eraginkorra eta egokia, askotariko hartzaileei –komunikabideak eta jendea barne– zuzendurikoa emango da.
 - 6.12. Jarduera gauzatu bitartean pertsonaren oinarrizko eskubideak eta indarrean dagoen legedia behar bezala betetzen direla zaintzea, jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, edota beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozialaren ondoriozko diskriminazioen bat nagusitzea galaraziz; diskriminazioa eragin dezaketen hainbat faktore –hala nola sexua, jatorri etnikoa, arraza ezaugarriak, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, nazio gutxiengo batekoa izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina, sexu orientazioa, sexu- eta genero- identitatea eta beste edozein egoera edo faktore– batzeagatik askotariko diskriminazioa jasaten duten pertsonen edo gizataldeen oinarrizko eskubideak errespetatzea.
 - 6.13. Diruz lagundutako jardueraren berri emateko edo hura gauzatzeko erabiltzen diren ahozko zein idatzizko material guztiak (argitalpenak, iragarkiak, idazkiak, abisuak, publizitatea, megafonia...) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egitea. Material horietan, jarduera egiteko erabiltzen den hizkuntza izenburuaren bidez jakinaraziko da (materiala euskaraz bada, ez da gaztelaniara itzuliko eta alderantziz); bestela (izenbururik ez dagoenean), hizkuntza adieraziko da.
- Diruz lagundutako jarduerak web orri bat, zabalkunderako argitalpen bat edo aldizkariren bat badu, horren edukia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da.
- Era berean, ekitaldi publikoetan bozgorailu bidez ematen diren mezu guztiak euskaraz edo lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz edo beste hizkuntza batzuetan emango dira.
- 6.14. Aplikagarriak diren eta indarrean dauden araudi guztiak errespetatzea, batez ere, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.

6.15. Diruz lagundutako jardueran sortutako komunikazio osoa hizkera inklusiboan egitea eta erabiltzen diren irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotipatu gabea bermatzea.

6.16. Adierazitako betebeharrak, baita Oinarri hauetan xedatutakoaren arabera entitate onuradunei dagozkien beste edozein betebeharrak ere, neurri batean bete ezean edo behar bezala bete ezean, azkenik jasoko den dirulaguntzaren zenbatekoa edo, hala badagokio, ordaindu beharreko zenbatekoa proportzioan murriztu egingo da.

7. oinarria. Instrukzioa

7.1. Deialdi honen oinarrietan aipatzen diren prozeduren instrukzioa Energia Eraginkortasunaren Atalari dagokio.

Lehenik, dirulaguntza hauen onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatuko du. Egokitzen jotzen dituen jarduketak guztiak ofizioz egingo ditu, ebazpen proposamena formulatzeko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatuko. Beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahal izango ditu eta horiek bidaltzeko hamar eguneko epea egongo da, epe laburrago edo luzeago batean bidali behar ez badira; azken kasu horretan, gehienez ere bi hilabeteko epea ezarriko da.

Eskaerak aztertzeko prozesuan, entitate eskatzaileentzako entzunaldia eskatu ahal izango du, beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia biltzeko.

7.2. Organo instruktoreak eskaerak ebaluatu ondoren, egindako ebaluazioaren emaitza xehetasunez azaltzen duen txostena igorriko du.

7.3. Espedientea eta txostena ikusita, organo instruktoreak ebazpen proposamena taxutuko du, behar bezala arrazoitua, ebazpenak emateko eskumena duen organoari aurkezteko.

7.4. Proposamenak dirulaguntza emateko proposatutako entitate eskatzailea eta zenbatekoa aipatu beharko ditu, baita, hala badagokio, eskaera gaitzesteko erabakia eta horren arrazoiak ere.

8. oinarria. Balorazio irizpideak eta dirulaguntzaren zenbatekoa

8.1. Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideak eta proiektuak baino ez dira diruz lagunduko.

8.2. Dirulaguntzak lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira; horrek esan nahi du interesdunek dagokion eskabidea aurkeztu beharko dutela, beharrezko dokumentazioarekin batera. Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu diren ordenaren arabera izapidetu eta emango dira, eta aurkezpen-ordenatza hartuko da eskaera behar bezala aurkeztzen den unea.

Aurkezteko ordena ezarriko da dirulaguntza emateko baldintzak betetzen direla justifikatzen duten agiri guztiak aurkeztzen diren unean eta, hala badagokio, eduki- edo forma-akatsak zuzentzen direnean. Hasierako eskabidean eduki- edo forma-akatsik badago, ez da joko zuzen aurkeztutakotzat, harik eta zuzendu arte.

Emateak oinarri hauetan ezarritako mugen barruan egingo dira, deialdian aurreikusitako kreditua agortu arte.

8.3. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa (proiektuko) diruz lagun daitezkeen gastuen % 75 izango da, BEZa kanpo, zerga hori kengarria bada. Edonola ere, dirulaguntzaren zenbatekoa gehienez ere 10.000 euro izango da energia komunitateak eratzeko eskaeren kasuan, eta gehienez ere 20.000 euro, eguzki energia fotovoltaiakoaren instalazioak jartzeko eskaeren kasuan.

Jarduerak ezingo dute dirulaguntza deialdi honetan parte hartu, diruz lagun daitezkeen kostua ondokoa baino txikiagoa bada:

— Energia komunitate berriak eratzeko eta lehendik dauden komunitateei laguntzeko eta beren kudeaketaren jarraipena egiteko jarduerak diruz lagungarriak: 3.000 euro (BEZ gabe, kengarria bada).

— Energia berriztargarrien komunitateek eguzki energia fotovoltaiakoaren instalazioak jartzeko jarduerak diruz lagungarriak: 15.000 euro (BEZ gabe, kengarria bada).

— Etxebizitza-erabilerako eraikinen jabekideen erkidegoek eguzki energia fotovoltaiakoaren instalazioak jartzeko jarduerak diruz lagungarriak: 5.000 euro (BEZ gabe, kengarria bada).

9. oinarria. Eskaerak ebaztea

9.1. Aurreikusitako dirulaguntzak jarduera edo egoera zehatzak finantzatzeko direla eta balorazioa egiteko gainerako proposamenekin konparatu behar ez direla kontuan hartuta, laguntzak emateko ebazpenak ondoz ondoko konkurrentzia prozeduraren bidez emango dira, egoera edo jarduera diruz laguntzeko modukoa dela eta gainerako eskakizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontuko kreditua agortu arte. Horiek horrela, eskaerak aurkezteko hurrenkerari hertsiki jarraikiz aztertu eta izapidetuko dira.

9.2 Oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak emateko prozeduren behin betiko ebazpenak ematea hiriko Ekonomiako, Tokiko Enpleguako eta Ekologiako zinegotzi ordezkariari edo hura ordezkatzeko duen karguari dagokio. Ebazpen horietan entitate eskatzailea eta aurkeztutako proiektua edo jarduera identifikatuko dira; dirulaguntza jaso dutenen kasuan, proiektuaren kostu osoaren ehunekoa –diruz lagunduko dena– eta emandako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa adieraziko dira. Dirulaguntza ukatu zaien jardueren kasuan, ukapenaren arrazioa azalduko da.

9.3. Dagokion ebazpena eman eta argitaratzeko edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskaera aurkeztean denetik zenbatzen hasita.

9.4. Aurreko apartatuan ezarritako epea ebazpena jakinarazi edo argitaratu gabe igarotzen bada, entitate interesdunek eskaera administrazio isiltasunaren bidez ezetsi dela jo ahal izango dute.

9.5. Ebazpena bitarteko elektronikoz jakinaraziko zaie pertsona eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta eskatzaileek 15 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Dirulaguntza onartu dutela joko da, goian aipaturiko epean uko egitea esanbidez adierazten ez badute.

9.6. Administrazio prozedurari buruzko legedian aurreikusitako egoerak izango dira ebazpenak deuseztatu edo baliogabetzeko arrazoiak. Egoera horietako batean, dirulaguntza eman duen organoak kasua ofizioz berrikusteko prozedura abiaraziko du edo, hala badagokio, ebazpenaren kaltegarritasuna adierazita, aurkaratu egingo du, administrazio prozedurari buruzko legedian xedatutakoaren arabera. Ebazpenen ofiziozko berrikuspena ez da egingo zenbatekoak itzultzeko arrazoiak daudenean.

9.7. Era berean, egintzak errebokatzeko eta hutsak zuzentzeko, 39/2015 Legearen 109. artikuluan xedatutakoa aplikatu beharko da.

10. oinarria. Ordaintzea eta justifikatzea

10.1. Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- % 70, emateko erabakia organo eskudunak onartzen duenean.
- % 30, dirulaguntza justifikatzeko eskatzen diren dokumentuak aurkeztu eta baliozkotu ondoren.

10.2. Dirulaguntza ordaintzeko baldintza diruz lagundu nahi den jarduera gauzatzea izango da, eta, aldez aurretik, 2025eko irailaren 30era arte hurrengo apartatuan zerrendatzen diren dokumentu justifikagarriak aurkeztu beharko dira.

10.3. Ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntzaren xede den jarduera benetan eta osorik gauzatu dela egiaztatzeko azken justifikazioa dokumentatu beharko da, www.donostia.eus webgunean (*Tramite eta Zerbitzuak / Tramiteak / Elkarrekin-Entitateak / Laguntza ekonomikoak*) ondoko agiriak aurkeztuz.

A multzoa. Energia berriztagarrien komunitateak sortzen laguntzeko dirulaguntzak:

- Txosten teknikoa, proiektua edo burututako jarduerak azaltzen dituen.
- Memoria ekonomikoa egindako jardueren kostua justifikatzeko, honako hauek jasoko dituen:
 - a) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.
 - b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, aurreko lerrokadan aipatutako zerrendan sartuta daudenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

c) Tasatzaile independentearen ziurtagiria, behar bezala egiaztatua eta dagokion erregistro ofizialean inskribatua, ondasun higiezinak eskuratuz gero.

d) Hala badagokio, a) idatz-zatian aipatzen den zerrendan jasotako kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea, dirulaguntzaren oinarri arautzaileek justifikatu beharrik gabe oroharreko zenbatekoarekin konpentsatzea aurreikusi duten kasuetan izan ezik.

e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

f) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

2025eko ekainaren 1a baino lehen egindako gastuak jasotzen dituzten fakturak ez dira onartuko.

B multzoa. Eratutako energia komunitateei laguntzeko dirulaguntzak:

— Eguzki energia fotovoltaiakoaren instalazioari dagokion obra bukaerako proiektua eta horren argazkiak.

— Instalazioa Eusko Jaurlaritzako Industria Sailean legalizatu dela egiaztatzen duen dokumentua.

— Hirigintzako lizentzia edo, hala badagokio, hirigintza egokitasunaren egiazttagiria.

— Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

a) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

b) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliokidea duten edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak, aurreko lerrokadan aipatutako zerrendan sartuta daudenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.

c) Tasatzaile independentearen ziurtagiria, behar bezala egiaztatua eta dagokion erregistro ofizialean inskribatua, ondasun higiezinak eskuratuz gero.

d) Hala badagokio, a) idatz-zatian aipatzen den zerrendan jasotako kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea, dirulaguntzaren oinarri arautzaileek justifikatu beharrik gabe oroharreko zenbatekoarekin konpentsatzea aurreikusi duten kasuetan izan ezik.

e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

f) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

2025eko ekainaren 1a baino lehen egindako gastuak jasotzen dituzten fakturak ez dira onartuko.

10.4. Jarduerak finantzatzeko –dirulaguntza honetaz gain– beste dirulaguntza batzuk erabili badira, funts horien zenbatekoak, nondik jaso diren eta diruz lagundutako jardueri zergatik aplikatzen zaizkien azaldu beharko da justifikazioan.

10.5. Dirulaguntza ematen duen organoak egiaztatuko du dirulaguntza behar bezala justifikatu den, jarduera gauzatu den eta dirulaguntza emateko erabakigarria zen helburua bete den ala ez.

10.6. Eskatzen diren dokumentuak falta direla edota dokumentu horietan edo justifikazio orrian akats formalak daudela ikusten denean, baita aurkeztutako dokumentazioan akatsak ikusten direnean ere, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie akatsak zuzentzeko, errekerimenduaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Emandako epea ikusitako akatsak zuzendu gabe igarotzen bada, izapidean jarraitzeko eskubidea galtzea adieraziko da, 39/2015 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren arabera eman ondoren.

10.7. Justifikatutako gastu erreala diruz lagundutako jardueraren kostua –hasieran aurreikusi dena– baino txikiagoa bada, ordaintzeko zenbatekoa gastu horri dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako ehunekoa aplikatuz zehaztuko da, emandako ehunekoa legokioketena baino txikiagoa ez bada behintzat, 8.3 oinarrian aipatzen diren gehieneko balioak –diruz lagun daitekeen gastu ehunekoa edo eskaera bakoitzeko eman daitekeen zenbatekoa– aplikatzearen ondorioz. Kasu horretan, aplikatu behar den dirulaguntzaren ehunekoa

handitu ahal izango da aipatu oinarrian ezarritako mugaraino, hori txikiagoa bada. Inola ere ezingo da gainditu laguntzaren mugako zenbatekoa, aipatu ebazpenean ezarri dena.

10.8. Aurreko puntuan ezarritakoa aplikatu aurretik, Donostiako Udalak beharrezko kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko. Eskatzaileak bere datu pertsonalak kontsultatu ezin direla uste badu, datu horiek aurkezteaz gain, aurka egiteko erabakia justifikatu beharko du. Eskubide hori, baita datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak ere, erabil ditzake, www.donostia.eus webgunearen bidez (*Tramite eta Zerbitzuak / Tramiteak / Elkarteak-Entitateak / Laguntza ekonomikoak*) arduradunarengana jotzen badu.

11. oinarria. Baldintzak ez-betetzea eta dirulaguntzak itzultzea

11.1. Onuradunak Oinarri hauetan eta aplikatu beharreko gainerako araudietan ezarritako baldintza edo betebeharrak bat betetzen ez badu, dirulaguntza jasotzeko eskubide osoa edo neurri batean galdu egingo du eta itzuli beharko ditu jasotako zenbatekoak, baita berandutze interesa ere, dirulaguntza ordaintzen denetik itzuli behar dela erabaki artekoa, baldin eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko Erregelamenduan aurreikusitako egoeretakoa bat bada.

Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, eta egindako lanen arabera zehaztuko dira, proiektu osoa eta jasotako zenbatekoak aintzat hartuta.

11.2. Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko dira, hortaz, dirua ezarritako epeetan itzuli ezean, premiamendu bidez eskatu ahal izango da.

11.3. Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol funtzioak erabili bitartean emandako dirulaguntzaren helburua, erabilera edo lorpen ez egokiaren zantzuak ikusiz gero, zantzu horiek espedientean adieraziko dira eta beharrezkoak diren kautela neurriak hartu ahal izango dira.

12. oinarria. Diru kopuruak itzultzeko prozedura

12.1. Dirulaguntza eman duen organoak izango du emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko exijitzen duen ebazpena emateko eskumena. Administrazioaren eskubidea –itzultzea onartu edo likidatzeko– lau urte igarotakoan preskribatuko da.

12.2. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da dirulaguntza eman zuen organoak hala eskatuz gero, goiko agindu bidez, beste organo baten eskaera arrazoitua eginez gero edota gai hori kontrolatu edo ikuskatzeko eskumena duen organo batek eskatuta, salaketaren edo partikularrak berak egindako jakinarazpenaren ondorioz.

12.3. Prozedura izapidetzean entitate interesdunaren entzunaldirako eskubidea bermatuko da kasu guztietan.

12.4. Emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat ez dela behar bezala erabili egiaztatuz gero, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, eta bertan esanbidez aipatuko du dirua itzultzera behartzen duen arrazoi (edo arrazoiak), baita itzuli beharreko kopurua ere; era berean, dirua nola eta noiz itzuli behar den azalduko da, aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu bidera joko dela ohartarazita.

12.5. Aurreko atalean deskribatutako itzultze ebazpenaren berri emanda, Finantza Zuzendaritza arduratuko da espediente izapidetzeaz, horretarako, legedi eta erregelamenduetan zuzenbide publikoko diru-sarrerentzat aurreikusitako arauak kontuan hartuta.

12.6. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura administrazioko arau-haustetzat jotzeko moduko egitateen ondorioz hasiz gero, horren berri organo eskudunari emango zaio dagokion zehapen prozedurari hasiera eman diezaion.

12.7. Dirulaguntza itzultzeko prozedurari buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hamabi hilabete izango da, prozedura hastea erabakitzen den egunetik aurrera. Epe hori esanbidezko ebazpenik gabe igarota, prozedura iraungitzat joko da, jarduketak amaitu arte jarraitzeko aukera galarazi gabe eta preskripzioa aipatu epea amaitu arte egin diren jarduketan ondorioz eten dela jo gabe.

12.8. Dirulaguntza eman duen organoak horren zenbatekoa itzultzeko eskaera egin baino lehen, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluan jasotako edozein arrazoi dela medio, entitate onuradunak dirulaguntza bere borondatez itzuli ahal izango du ES03 2095 0611 05 1060000006 kontu korrontean, entitatearen izena, kopurua eta gaia adierazita (Dirulaguntza itzultzea / proiektua). Dirua sartuta, entitate onuradunak egindako sarreraren egiaztagiraren kopia bat dirulaguntza eman duen organoari bidali beharko dio.

Dirua borondatez itzultzeak ez du kentzen berandutze interesak ordaintzeko beharra; interes horiek dirulaguntza ordaindu zen egunetik entitate onuradunak dirua egiaz itzuli zuen arte kalkulatuko dira. Aplikatu beharreko berandutze interesa Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 38.3 artikuluan ezarritakoa izango da.

12.9. Jarduera egin ondoren aplikatu ez diren gerakinak itzuli behar direnean edota dirulaguntza justifikatzeko emandako epean edo epez kanpo (baldin eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 70.3 artikuluan aipatutako errekerimendua egin ez bada) dirulaguntzari uko egiten zaionean, berandutze interesa diruaren legezko interesa izango da.

Dirua goian aipatutako kontu zenbakira itzuliko da, entitatearen izena, zenbatekoa eta gaia adierazita (Dirulaguntza itzultzea / proiektua). Dirua sartuta, entitate onuradunak egindako sarreraren egiaztagiriaren kopia bat dirulaguntza eman duen organoari bidali beharko dio.

12.10. Interesak organo instruktoreak likidatuko ditu, entitate onuradunak dagozkion dirua kontuan sartu eta gero.

13. oinarria. Arau haustearen kontzeptua

Administrazioko arau haustetzat hartzen dira Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean zehaztuta dauden ekintzak edo ez-egiteak, eta horiek guztiak zigortu ahal izango dira, zabarkeria baino ez badira ere.

14. oinarria. Zehapen prozedura

Une oro indarrean dagoen araudiaren eta eskumenak emateko egituraren arabera, aipatu eskumena duen organoa izango da zigorrak jartzeko organo eskuduna.

Zehapen prozedura izapidetzeko, administrazioko prozedura eta administrazio publikoen zehapenak ezartzeko ahalmena arautzen dituzten lege xedapenetan eta araudietan ezarritakoa beteko da, baita dirulaguntza publikoei buruzko araudian aurreikusitakoa ere.

Zehapenak lau urteko epea igarotakoan preskribatuko dira, zehapena ezarri zuen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik hasita.

Ezarritako diru isunek ez dute loturarik izango dirulaguntza itzultzeko betebeharrarekin, eta zuzenbide publikoko diru sarrerentzat aurreikusitakoa aplikatuko da isun horiek kobratzeko.

15. oinarria. Zehapenak

Zehapenak mailakatze irizpideen arabera ezarriko dira, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 59. artikuluan eta hurrengoetan, baita lege hura garatzeko erregelamenduan ere zehaztutako zenbatekoetan.

16. oinarria. Zigor arloko prozesuarekin batera gertatzea

Prozedura izapidetzean agerian geratzen bada onuradunak arau hauste penala eragin dezakeen ekintza edo ez-egite bat egin duela, Administrazioak horren berri jurisdikzio eskudunari emango dio eta zehapen prozedura etetea erabakitako du, ebazpen judizial irmoa eman arte.

17. oinarria. Beste zehapen espediente batzuekin batera gertatzea

Diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak diren baimenak eskuratu ezean, hala badagokio, dagozkion zehapen espedienteak irekiko dira; baimena eman zuen administrazio unitateak izapidetuko ditu espediente horiek.

Espediente horietan erabakitako diru isunak dirulaguntza dela eta oraindik jaso ez diren zenbatekoetatik kendu ahal izango dira.

18. oinarriak. Kalteak ondasun publikoetan

Diruz lagundutako jarduera egin bitartean ondasun publikoetan kalteak egiten badira, kontraesaneko espedientea bideratuko da kalte horiek zehazte aldera. Eragindako kalteak konpontzeko edo birjartzeko zenbatekoa jasotzeko dagoen dirulaguntzatik kenduko da. Zenbateko hori kalte guztiak ordaintzeko nahikoa ez bada, neurri gokiak hartuko dira geratzen den kopurua kobratzeko.

19. oinarria. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea

Diruz lagundutako jarduera egiteko behar den ehunekoa –gehienez ere ehuneko ehun– hirugarren bati azpikontratatu ahal izango zaio. Inola ere ezingo dira azpikontratatu balio erantsirik sortu gabe diruz lagundutako jardueraren kostua handitzen duten jarduerak.

20. oinarria. Diruz lagun daitezkeen gastuak

20.1. Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetarako diruz lagun daitezkeen gastutzat hartzeko, gastuek dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe lotuta egon eta jarduera hori gauzatzeko beharrezkoak izan beharko dute. Diruz lagun daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua inoiz ere ez da merkatuko balioa baino handiagoa izango.

20.2. Obra zibila egiteko gastuak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta, Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzaren zerbitzu teknikoaren arabera, diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta ez badaude edo hura egiteko ezinbestekoak ez badira.

20.3. Diruz lagun daitezkeen gastua Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikirako ezarri den zenbatekoa baino handiagoa bada, entitate onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu aurretik, obraren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan eskaintzak aurkez ditzaketen enpresen kopurua txikiegia denean izan ezik.

Aurkezten diren eskaintzak dirulaguntzaren justifikazioan edo, hala badagokio, eskabidean azaldu beharko dira eta, hautaketa egiteko, efizientzia eta ekonomikotasun irizpideak aplikatuko dira; proposamen ekonomiko merkeena aukeratu ezean, txosten batean esanbidez justifikatu beharko da erabakia.

20.4. Ondoko gastuak ezingo dira diruz lagundu:

- BEZa, berreskuragarria edo konpentsagarria denean.
- Otordu ordainak eta bidaiak.
- Ekipoak eta instalazioak konpontzeko, egokitzeko eta mantentzeko inbertsioak.
- Gastu propioak, langileen nahiz funtzionamenduaren gastuak edo gastu orokorrak.
- Inbertsioaren ondoriozko gastu finantzarioak.
- Proiektuan erabilitako higiezinak eta lurrak eskuratzeko edo alokatzeko kostua.
- Eskatzaileak sinatutako aseguruak.
- Zaintza eta segurtasuna diruz lagun daitezkeen jarduerari lotutako obrak egikaritzean.
- Energia soilik diruz lagun daitezkeen instalaziotik ebakuatzeko ez diren linea elektrikoak egokitzeko, moldatzeko edo egiteko kostua.

Ingurumenaren babes maila handiagoa lortzeko zuzenean lotuta ez dauden kostuak ezingo dira diruz lagundu.

Oro har, argi eta garbi zehaztu ez diren edo inbertsioaren helburu energetikoak zuzenean lortzeko ez diren gastuak; edonola ere, eztabaidarik egonez gero, Donostiako Udaleko Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzaren irizpidea nagusituko da.

21. oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea

21.1. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan funtsezko aldaketaren bat eginez gero –betiere dirulaguntzaren xedea bete baldin bada–, eta, nolanahi ere, aldi berean beste edozein erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntzak eta laguntzak lortuz gero, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezaketen egoeratzat honako hauek hartuko dira:

- Aldaketak proiektuaren kokapenean.
- Proposamena edo proiektua gauzatzeko epeak aldatzea, betiere proiektua dirulaguntza ematen den urtean hasi baldin bada.
- Hasieran onetsitako proiektuaren ezaugarri tekniko edo ekonomikoak aldatzen dituzten eta nekez aurreikus daitezkeen bat-bateko inguruabarren ondoriozko aldaketak.
- Administrazioari egozteko moduko akats materialak.

Aldaketek ezin izango dute dirulaguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatu, ezta lehiakortasun printzipioari eragin edo hirugarrenei kalterik sortu ere.

Oinarriak aldatzeko, aldaketa proiektua gauzatzeko epea amaitu baino lehen idatziz eskatu beharko da, eta espresuki onetsi beharko da. Ondorio horietarako, ebazteko eskumena duen organoak oinarriak aldatzeko ebazpena emango du, behar izanez gero, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak egokitzen dituena.

21.2. Entitate onuradunek emandako zenbatekoa murriztea edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea eskatzen duten aldaketak, dirulaguntza emateko ebazpenean egin beharrekoak, diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino lehen eskatu beharko dizkiote dirulaguntza eman duen organoari; aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko egoera bat denean edota jarduera burutzeko beharrezkoak direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak urratzen ez badira.

21.3. Salbuespen gisa, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeak diruz lagundutako jarduera amaitzeko epea luzatzea ekar dezake ondorioz, baldin eta luzapen hori beharrezkoa bada jarduera behar bezala burutzeko, eta, betiere, 10. oinarrian adierazitako epea amaitu aurretik –2026ko irailaren 30–, entitateak justifikatu badu emandako dirulaguntzaren baliokidea den gastua benetan egin dela, dagozkion fakturak edo gastuak egiaz egin izana egiaztatzen duten frogagiriak aurkeztuz. Epea luzatzeko eskaera eskatutako dirulaguntza justifikatzeko epea amaitu baino hilabete lehenago egin beharko da.

Era berean, hala badagokio, entitate eskatzaileak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, jardueraren kostua aipatzen duena, justifikatu gabe dagoen zenbatekoa adierazita. Dirulaguntza ematen duen organoak aintzat hartuko du zenbateko hori dirulaguntza ordaintzea erabakitzeko orduan, eta emandako dirulaguntza jaitsi ahal izango du, justifikatutako eta aurreikusitako diru kopurua hasierako aurrekontua –diruz lagungarria– baino txikiagoa bada. Epearen luzapenak inola ere ez du gaindituko ezarritako epemuga: 2026ko azaroaren 30.

Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epearen luzapena salbuespena denez, luzatzeko eskubidea eskatu eta lortuz gero ordaindu beharreko zenbatekoa eskaera egiten den unean justifikatutako edo egin beharreko gastuari buruz aurkeztutako dokumentazioaren arabera izango da, baina horrek ez du sortuko diruz lagundutako jarduera gauzatzeko eta justifikatzeko epea amaitzean zenbateko gehigarriak jasotzeko eskubiderik, hargatik eragotzi gabe 11. oinarrian ezarritakoa, ez-betetzeari eta, kasua bada, bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeari dagokienez.

21.4. Halaber, dirulaguntza ematen duen organoak ebazpena ofizioz aldatu ahal izango du, entitate onuradunari entzunaldia eskaini ondoren eta funtsak bideratu aurretik, dirulaguntza ematerakoan kontuan izandako baldintzen aldaketak lortu nahi izan den interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu, onuradunari kalte ekonomikorik eragin gabe.

21.5. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketak eta beste laguntza batzuk eskuratzeko, diruz lagundutako kostua gaindituta (BEZik gabe, zerga hori kengarria bada), dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.

22. oinarria. Aplikatu beharreko araudia

22.1. Dirulaguntza hauek emateko prozesua eta erakunde emailearen eta entitate onuradunaren arteko harreman juridikoa Oinarri hauek arautuko dituzte, baita dirulaguntzak ematen direnean indarrean dauden araudiek ere.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko Erregelamendua (887/2006 Errege Dekretuak onartutakoa) aplikatuko dira.

Era berean, aipatu araudian aurreikusi ez diren kontuetarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatu beharko dira.

Halaber, dirulaguntza hauek ematea eta diruz lagundutako proiektuak eta jarduerak gauzatzea 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onartzen duena, eta Donostiako Udalaren IV. Berdintasun Planaren esparruetan.

Era berean, dirulaguntza hauek Euskararen erabilera normalizatzeko 6. Planaren (2018- 2022) markoan emango dira. Plangintzaren 7. aldia onartuz gero, horixe izango da kontuan hartu beharreko markoa.

23. oinarria. Errekurtsoak

Oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edota, bi hilabeteko epean, zuzenean aurkaratu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Kasu bietan, epeak Oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen.